



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



OSTALARITZA / MESA DE HOSTELERÍA

Elkartegia (Ogoño 1), 2020ko uztailaren 14a, 09:30

GAI-ZERRENDA:

1. Agurrak eta mahaikideen aurkezpena
2. Eredu berria aurkezteko bideoa: ForoConsultivo-Getxo-CASTELLANO.mov
3. Ereduaren azalpena: PPT Presentación mesas Hosteleria Comercio.pptx /
Gehigarria: Suplemento Foro.pdf
 - a. Helburuak eta funtzioak
 - b. Komunikazioa
 - c. Kronograma
4. Proiektuak/ideiak:
5. Bestelakoak

BERTARATUTAKOAK:

ALGORTA /ANDRA MARI		
Monica Sesar	Nikkou Sushi	Bertaratu da
Jorge Alonso	Txinuk	Bertaratu da
AREETA		
Roberto del Fresno	Glass	Bertaratu ezina adierazi du
Ana Garcia	Pianamul	Bertaratu ezina adierazi du
PORTU ZAHARRA/NEGURI/KIROL PORTUA		
Kotska Mandaluniz	Borda erretegia	Bertaratu da, Zoom bidez
Diego Castellanos	La Ola	Bertaratu da
ROMO		
Hautagaitzarik gabe - Hutsik		
Romo Bizirik		
Lanpostu hutsa		
Getxoko Ostalaritza Elkartea		
Lanpostu hutsa		
Getxo Enpresa		
Maria Del Fresno	La Kazuela	Bertaratu da
Bizkaiko Ostalaritza Elkartea		
Hector Sánchez		Bertaratu ezina adierazi du
Sustapen ekonomikoa		
Sonia Urdiain	Enpresa turistikoak	Bertaratu da
Mirene	Merkataritza eta	Bertaratu da



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Zabalgogea

ostalaritza

EDUKIAK:

1. Bertaratuak agurtu eta aurkeztu dira.
2. Enpresen eta udalaren arteko elkarriketarako eredu berria aurkezteko bideoaren proiektzioa.
3. Udal teknikariek helburuak, funtzioak, komunikazioa eta kronograma aurkeztu dituzte.

3.1.- Helburuak eta funtzioak:

Sektore mahaietan azalduko dira sektoreak berak proposatutako proiektu guztiak, sektorearen interesekoak direnak edo estrategikotzat jotzen direnak. Proiektuak martxan jartzea eta behar bezala gauzatzea zainduko dute kideek eta sektoreko beste batzuek, proiektuak pilotatzeko batzordeetan.

3.2.- Komunikazioa:

Helbide elektronikoak ahalbidetuko dira sektore bakoitzeko proposamenen berri mahaiko eta lantalde teknikoko kide guztiek izan dezaten.

Eta zabalpenerako ekintzak egingo dira, helburutzat izango dutenak mahai berria eta bertako ordezkariak ezagutzera ematea.

3.3.- Kronograma:

Kronograma azaldu da eta beharrezko azalpenak eman dira mahaien proposamenak urteko aurrekontuen onespenerarekin denboran lerrokatzearen garrantzia ulertzeko.

Proiektuak landuta, lehenetsita eta kontraste politikoko mahaietan kontratatuta egon behar dira hurrengo ekitaldiko aurrekontuetara aurkeztu ahal izateko.

Adierazi da, halaber, aurrekontu bat egongo dela ekitaldi berean proiektuak egin ahal izateko; ekintza txikiak baina esanguratsutzat jotzen direnak eta aukerako edo premiazko proiektuak.

4. Sektoreak planteatzen dituen lehentasunezko ekintzen artean, honako hauek daude lotuta COVIDaren ondorioz saltokiek bizi duten egoera zailari:

4.1.- **Zerbitzu lasterra (48 ordu) gaitzea terrazak zabaltzeko eskariak ebazteko.** Jarduketa honekin batera, jakinarazpen bat bidaliko litzaieke ostalaritza establezimendu guztiei.

Uda sasoirako eskatzen dira zabaltzeak; beraz, administrazioak erantzun azkarra eman behar du. Eskaria aurkeztu eta hilabetera erantzunik jaso ez duten establezimenduen kasuak aipatu dira.

4.2.- **Gazte taldeen pilaketek** kezka sortzen dute, bereziki San Nikolas plazan, alkohola kontsumitzen. Horrek irudi negatiboa ekar diezaioke tokiko ostalaritzari. Hori guztia, bezeroei zerbitzu segurua bermatzeko



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

neurriak zorrozten ari diren unean. Laguntzeko neurriak (zaintza, ohartarazpenak...) jarri beharko ditu Udaltzaingoak.

4.3.- Halaber, **bezeroei segurtasun neurriak betearazteko ostalariak dituzten zailtasunak** azaldu dira. Maskararen erabilera ez derrigorrezkoak bezeroen kexak eta tentsio uneak ekarri ditu.

Osasun sailburuaren 2020-07-15eko Agindua onetsi ostean, maskara nahitaezkoa izatera pasa zen ostalaritzako establezimenduetan.

Gomendatzen dute **herritarrei zuzendutako sentsibilizazio / komunikazio kanpaina** baten bidez laguntza ematea, ostalaritzaren arloan bete beharreko segurtasun neurriak zabaltzeko.

4.4.- **Terrazen ordutegiak zabaltzea** proposatu da: Ordubete, ostiralean eta larunbatean, udako denboraldian. Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuaren 2020-07-15eko Aginduak galarazi egiten du ordutegiak zabaltzea. Beraz, proposamena ez da bidezkoa.

4.5.- Informazioa eskatu da **Gaintzako aparkalekua** martxan jartzeko epeei eta aparkaleku kopuruari buruz. Jakinarazi da aparkalekuko obrak aurki amaituko direla. Lekuen % 50ek (120 inguru) txandakako erabilera izango dute. Irailean martxan jarriko da kudeaketa sistema ezartzeko prozedura. 2021ean martxan egon daitekeela aurreikusten da.

Halaber, udalerriko beste leku batzuetan kokatutako aparkalekuen **kudeaketa eraginkorragoa** eskatu dute (San Nikolas, Santa Eugenia...). Horiek okupatu barik daude, eta **txandakako erabilera** izanez gero, udalerriko aparkatzeko arazoak murriztu ahal izango dira.

Ostalariak eskatu dute enpresek aparkatzeko orduak erosi ahal izatea negoziatutako prezio batean, bezeroei X €-tik gorako kontsumoak erraztu ahal izateko, edo antzeko **hobari sistemaren bat**.

4.6.- **GetxoBono**: Ostalaritzako establezimenduetan gutxi erabiltzen dela antzeman da. Atxikitako ostalaritzako establezimendu kopurua eskasa da, lehen aldia da ostalaritzak bono horietatik onura atera dezakeena, herritarren ohitura falta... izan daitezke kontsumo eskasaren arrazoiak.

GetxoBonoko **komunikazio kanpaina biziagotzea** proposatu da, eta nabarmentzea ostalaritzako zerbitzuak txertatu direla, berrikuntza gisa, bonuak trukatzeko lekuen artean.

4.7.- **Komunikazio kanpaina** dinamikoa, freskoa eta nagusiki sare sozialetan oinarritua proposatzen da, ostalaritza getxotarraren posizionamenduari, lagunduko diona, establezimenduei ikusgarritasuna emango diena, horien berritasun edo espezialitateei, jardueren agendari... Ondorioztatu da kanpaina ezin daitekeela udal kanaletatik gauzatu.

5.- BESTE BATZUK



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

Kezka azaldu da Romo inguruko ordezkariak ez dagoelako. Ordezkarietako batzuk Romoko establezimenduekin harremanetan jarriko dira, foroan parte hartzera animatzeko.

AKORDIOAK:

AKORDIOAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Aktaren zirriborroa bidaltzea	Udal teknikariak	2020/07/20.
2. Mahaia eta bertako ordezkariak ezagutzera emateko kanpaina abiatzea, bai eta ideiak, iradokizunak eta abar helarazteko bideak ere.	Udal teknikariak	2020/07/20.
3. Ordezkariei beren ordeztuen zerrenda osatua ematea, horiekiko komunikazioa errazteko	Udal teknikariak	2020/07/20.
4. Ostalaritzari lotutako GETXOBONO kanpaina biziagotzea	Udal teknikariak	Uztailaren 31 baino lehen
5. Herritarrek hartu beharreko segurtasun neurriak zabaltzen laguntzea ostalaritzako establezimenduetan.	Udal teknikariak	Uztailaren 31 baino lehen
6. Jasotako proposamenak helaraztea gobernu taldeari, baloratzeko eta dagokion batzordeari jakinarazteko.	Udal teknikariak	Uztailaren 17 baino lehen
7. Jasotako proposamenak helaraztea horiek baloratu eta gauzatzeko eskumena duten udal arloei.	Udal teknikariak	Uztailak 20-24ko astea